EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**LEHENDAKARITZA**
*Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza*
*Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

**PRESIDENCIA**
*Dirección de Estudios y Régimen Jurídico*
*Gabinete de Prospección Sociológica*

# EAEko herritarrak eta ingurumena

# *La ciudadanía de la CAPV y el medio ambiente*

( LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA / *DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE* )

2004ko Ekaina

*Junio 2004*



*http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos*

# Aurkibidea / *Índice*

**SARRERA / *INTRODUCCIÓN*** .................... **1**

**LABURPENA / *SÍNTESIS*** .................... **4**

**A – INGURUMENAREKIKO ARDURA / *PREOCUPACIÓN POR EL MEDIO AMBIENTE*** .................... **7**

- **Ingurumena zaintzea kezka bezala** / *La protección medioambiental como preocupación* ....................8
- **EAErako egungo lehentasunezko helburuak** / *Objetivos prioritarios para la CAPV en la actualidad* ....................10
- **EAErako etorkizunerako lehentasunezko helburuak** / *Objetivos prioritarios para la CAPV en el futuro* ....................13

**B – INGURUMENARI BURUZKO PROGRAMEN EZAGUTZA / *CONOCIMIENTO DE PROGRAMAS MEDIOAMBIENTALES*** .................... ***16***

- **Programen ezagutza** / *Conocimiento de los programas* ....................17
- **Garapen jasangarriaren euskal ingurumen estragegia** / *Estrategia ambiental vasca de desarrollo sostenible*....................*18*
- **Ingurumen adierazleak** / *Indicadores ambientales* ....................19
- **Tokiko agenda 21** / *Agenda local 21*....................20

**ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / *FICHA TÉCNICA*** .................... **21**

# Sarrera / *Introducción*

## Helburuak / *Objetivos*

**Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) herritarrek ingurumenari buruz dituzten iritziak** ezagutzea da txosten honen helburua, zehatzago, ingurumenaren babesak sortzen dien kezka, ingurumena EAErako lehentasunezko helburutzat jotzea, bai gaur egun, bai etorkizunari begira, eta EAEn martxan dauden ingurumenari buruzko programen ezagutza.

Kasu batzuetan 2004ko maiatzaren 1ean izandako zabalkuntza aurretik Europar Batasuna osatzen zuten 15 herrien datuak dauzkagu, beste kasu batzuetan EAEko lehenagoko (hain zuzen ere, 2000ko eta 2003ko) datuak ditugu. Horrela aztertutako datuekin konparazio geografikoak eta kronologikoak egin ditzakegu. Esan behar da dauzkagun datu guztiak, bai EAEkoak, bai beste lurraldeetakoak, 15 urte eta gehiagoko herritarrei dagozkiela.

El objetivo del presente informe es conocer **la opinión de los ciudadanos y ciudadanas de la CAPV sobre el medio ambiente,** más concretamente su preocupación por la protección medioambiental, la consideración del medio ambiente como un objetivo prioritario para la CAPV en la actualidad y de cara al futuro y el conocimiento de programas medioambientales que se llevan a cabo en la CAPV.

En algunos casos disponemos de datos de la Unión Europea (de los 15 países anteriores a la ampliación del 1 de mayo de 2004), en otros casos disponemos de datos de la CAPV de años anteriores (más concretamente de 2000 y 2003), con lo cual podemos establecer comparaciones geográficas y cronológicas de los datos analizados. Hay que señalar que todos los datos disponibles, bien de la CAPV, bien de otros países, corresponden a población de 15 y más años.

## Informazio iturria / Origen de la información

Lan honetako emaitzak **2004ko apirilean** Euskal Soziometroen bildumaren 25. ikerketan erabilitako galdesortan berariaz sartutako galdera multzo batetik datoz.

Galdera zehatzak **Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren eskaera** baten ondorioz landu dira, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin elkarlanean.

Los resultados de este trabajo proceden de un bloque de preguntas *ad hoc* incluidas en el cuestionario del estudio nº 25 de la serie de Sociómetros Vascos, **realizado en abril de 2004**.

Las cuestiones concretas planteadas han sido elaboradas a partir de una **petición del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente**, y en colaboración con el Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia del Gobierno Vasco.

## Kolektibokako azterketa / Análisis por colectivos

Inkestaren datuak biztanleriaren osotasunean ez ezik **segmentazio soziodemografiko eta soziopolitikoen arabera** ere aztertu dira. Segmentaziorako aldagai soziodemografiko eta jarrerazkoak, hau da, inkestako gizarte taldeak desberdintzen dituzten galderak, taulen zutabeetan azaltzen dira, dagokion adierazle soziologikoan desberdintasun adierazgarriak sortzen dituztenean. Ondokoak dira aldagai horiek (sortutako azpitaldeak letra etzanean azaltzen dira):

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia* eta *Gipuzkoa*.
- Udalerriaren tamaina: *txikia* (<10.000 biztanle), *ertaina* (10.000-120.000 biztanle) eta *hiriburua* (>120.000 biztanle: Gasteiz, Bilbao eta Donostia).
- Sexua: *gizonezkoa* eta *emakumezkoa*.

Los datos de la encuesta son analizados, no sólo desde los totales poblacionales, sino también en base a **segmentaciones sociodemográficas y sociopolíticas**, en función de las diferencias significativas entre los diversos colectivos sociales. Las variables diferenciadoras consideradas (y los subcolectivos formados, que aparecen en cursiva) son las siguientes:

- Territorio: *Araba*, *Bizkaia* y *Gipuzkoa*.
- Tamaño de municipio: *pequeño* (<10.000 habitantes), *mediano* (10.000-120.000 habitantes) y *capital* (>120.000 habitantes: Vitoria-Gasteiz, Bilbao y Donostia-San Sebastián).
- Sexo: *varón* y *mujer*.

- Adin taldeak: *15-17, 18-29, 30-45, 46-64* eta *>=65*.
- Ikasketa maila: *<lehen mailakoak, lehen mailakoak* (lehen mailakoak, oinarrizko batxilergoa, OHO), *bigarren mailakoak* (lanbide heziketa, goi-mailako batxilergoa, IEE, BBB, UBI), *goi-mailakoak* (diplomaturak, lizentziaturak, doktoretzak, graduondokoak).
- Ezker-eskuin ardatza: *ezkerra* (ezker muturra + ezkerra + zentro ezkerra), *zentroa* (zentroa), *eskuina* (zentro eskuina + eskuina + eskuin muturra), *ed/ee*.
- Ingurumena zaintzea arazo larritzat: *bai* (berehalako arazo larria dela uste dute), *ez* (gehien bat geroko arazoa dela edo ez dela benetako arazoa uste dute).

- Grupos de edad: *15-17, 18-29*, *30-45*, *46-64* y *>=65*.
- Nivel de estudios: *<primarios*, *primarios* (primarios, bachiller elemental, EGB), *secundarios* (profesionales, secundarios, bachiller superior, REM, BUP, COU), *superiores* (diplomaturas, licenciaturas, doctorados, postgrados).
- Eje izquierda-derecha: *izquierda* (extrema izquierda + izquierda + centro izquierda), *centro* (centro), *derecha* (centro derecha + derecha + extrema derecha), *ns/nc*.
- La protección medioambiental como problema urgente: *sí* (lo consideran un problema inmediato y urgente), *no* (creen que más bien es un problema para el futuro o que no es realmente un problema).

# Laburpena / *Síntesis*

## Puntuz puntu / *Punto por punto*

### *ZENBATERAINO KEZKATZEN GAITU INGURUMENA ZAINTZEAK?*

EAEko 15 urte eta gehiagoko herritarren %79k ingurumena zaintzea eta kutsaduraren kontra borrokatzea berehalako arazo larria dela uste dute. %16k gehienbat etorkizunerako arazoa dela uste dute eta %1entzat ez da benetako arazoa.

Ingurumena zaintzea berehalako arazo larria delako ideia apur bat gehiago aipatu da adina jaitsi ahala, ikasketa maila igo ahala eta/edo ardatz ideologikoan eskuinetik ezkerrera mugitu ahala; Bizkaian ere beste lurraldeetan baino apur bat gehiago esan dute hori.

### *GURE USTEZ, INGURUMENA BABESTEA EAE-RAKO LEHENTASUNEZKO HELBURUA AL DA?*

Biztanleriaren %3k bakarrik uste dute EAErako gaur egungo helbururik garrantzitsuena ingurumena zaintzea eta babestea dela. Gehiago dira ondoko helburuak aipatu dituztenak: aberastasuna sortu eta lana gehitu (%42), gatazka politikoa eta soziala murriztu (%35) edo pobrezia murriztu (%13). Beste %3k biztanleriaren osasuna hobetzea dela helbururik garrantzitsuena uste dute.

Hamar urte barru zeintzuk izango diren EAErako helbururik garrantzitsuenak galdetuta, ingurumena zaintzea eta babestea erantzun dutenak %10era igo dira; hala ere, beste helburuen atzetik geratu da: %33k aipatu dute aberastasuna sortzea eta lana gehitzea, %20k gatazka politikoa eta soziala murriztea eta %19k pobrezia murriztea. Ingurumenarena bakarrik biztanleriaren osasuna hobetzearen gainetik geratu da (azken hori %6k aipatu baitute).

Ingurumena zaintzea eta babestea, bai gaur egun, bai hamar urte barru, EAErako lehentasunezko helburutzat gehien jo dutenak 15-17 urteko nerabeak dira.

### *EZAGUTZEN DITUGU EAE-N INDARREAN DAUDEN INGURUMENARI BURUZKO PROGRAMAK?*

Bakarrik EAEko herritarren %34k entzun dute zerbait *Garapen jasangarriaren euskal ingurumen estrategiaz*, %24k *ingurumen adierazleez* eta are gutxiagok (%12k) *Tokiko agenda 21ez*.

Programa guzti horiek gehien ezagutzen dituztenak goi-mailako ikasketak dauzkatenak dira. Oro har, programa horien ezagutza gero eta handiagoa da ikasketa maila igo ahala eta ardatz ideologikoan eskuinetik ezkerrera joan ahala. Apur bat handiagoa da ere ingurumenaren babesa berehalako arazo larritzat jotzen dutenen artean horrela uste ez dutenen artean baino.

### *¿CUÁNTO NOS PREOCUPA LA PROTECCIÓN DEL MEDIO AMBIENTE?*

El 79% de los ciudadanos y ciudadanas de la CAPV de 15 y más años cree que la protección del medio ambiente y la lucha contra la contaminación es un problema inmediato y urgente. Un 16% cree que más bien es un problema para el futuro y un 1% que no es realmente un problema.

La idea de que la protección del medio ambiente es un problema inmediato y urgente es algo más señalada a medida que desciende la edad, que aumenta el nivel estudios y/o que nos movemos de derecha a izquierda en el eje ideológico; también es algo más mencionada en Bizkaia que en el resto de Territorios.

### *¿CREEMOS QUE LA PROTECCIÓN DEL MEDIO AMBIENTE ES UN OBJETIVO PRIORITARIO PARA LA CAPV?*

Tan sólo un 3% de la ciudadanía cree que el objetivo prioritario para la CAPV en la actualidad es la protección y conservación del medio ambiente. Son más quienes señalan la creación de riqueza y aumento del empleo (42%), la reducción de la conflictividad política y social (35%) o de la pobreza (13%). Otro 3% menciona la mejora de la salud de la población.

En relación a los objetivos prioritarios para la CAPV dentro de diez años, el porcentaje de quienes señalan la protección y conservación del medio ambiente se eleva al 10%, si bien se mantiene por detrás de la creación de riqueza y aumento del empleo (33%), la reducción de la conflictividad política y social (20%) y la reducción de la pobreza (19%). Únicamente la mejora de la salud de la población (6%) es menos mencionada que la protección y conservación del medio ambiente.

Quienes más señalan la protección y conservación del medio ambiente como el objetivo prioritario para la CAPV, tanto en la actualidad como dentro de diez años, son las y los adolescentes de 15 a 17 años.

### *¿CONOCEMOS LOS PROGRAMAS MEDIOAMBIENTALES VIGENTES EN LA CAPV?*

Apenas un 34% de la ciudadanía de la CAPV ha oído hablar de la *Estrategia ambiental vasca de desarrollo sostenible*, un 24% de los *indicadores ambientales* y menos aún (12%) de la *Agenda Local 21*.

Quienes más conocen todos estos programas son las personas que cuentan con estudios superiores. En general, el conocimiento de estos programas aumenta a medida que se incrementa el nivel de estudios y a medida que nos movemos de derecha a izquierda en el eje ideológico. También es algo superior entre quienes consideran que la protección medioambiental es un problema inmediato y urgente que entre quienes no opinan así.

## Beste lurraldeekin alderatuz / *Respecto a otros ámbitos geográficos*

2004an EAE 1999ko 15eko Europar Batasunaren batez bestekoaren gainetik dago ingurumena zaintzea eta kutsaduraren kontra borrokatzea berehalako arazo larritzat jotzen dutenen kopurua dela eta. Ingurumenaren babesa arazo larria dela uste duten herritarrak EAEn baino gehiago dira Grezian, Suezian, Portugalen eta Italian bakarrik.

La CAPV en 2004 se encuentra por encima de la media europea de 1999 (Europa de los 15) en relación al número de personas que consideran que la protección medioambiental y la lucha contra la contaminación es un problema inmediato y urgente. Únicamente Grecia, Suecia, Portugal e Italia presentan mayor número de ciudadanos y ciudadanas que la CAPV que señalan la urgencia de la protección medioambiental.

## Aurreko neurketekin alderatuz / *Respecto a períodos anteriores*

2000 eta 2003ko datuekin konparatuz, 2004an gehitu da **gaur egungo EAErako lehentasunezko helburua** aberastasuna sortzea eta lana gehitzea delako iritzia. 2003an gutxiago aipatu zen gatazka politikoa eta soziala murriztea eta gehiago aipatu ziren pobrezia murriztea, ingurumena zaintzea eta babestea eta biztanleriaren osasuna hobetzea (gogoratu behar da 2003an ingurumena eta osasunari buruz jasotako iritzietan “Prestige”n urperaketa eta horren ondorioz kostaldean izandako oihartzunaren eragina izan daitekeela). 2004an, berriz, gatazkak murriztearen aipamenak gehitu dira (halan eta guztiz, 2000n izandakoak lortu gabe) eta pobrezia murriztea, ingurumena babestea eta osasuna hobetzearenak 2000ko mailetara gutxitu dira.

**Hamar urte barruko EAErako lehentasunezko helburuak** direla eta, ingurumena zaintzea eta babestea gutxiago aipatu da 2004an, 2000n edo 20003an baino. Pobrezia murriztea, berriz, aurreko urteetan baino gehiago aipatu da eta aberastasuna sortzea eta lana gehitzeak, 2003an jaitsi arren, 2000ko aipamen maila lortu du berriro ere 2004an.

Respecto a 2000 y 2003, en 2004 ha aumentado la opinión de que el **objetivo prioritario para la CAPV en la actualidad** es la creación de riqueza y el aumento de empleo. En 2003 disminuyó la mención de la reducción de la conflictividad política y social y aumentó la de la reducción de la pobreza, de la protección y conservación del medio ambiente y de la mejora de la salud de la población (hay que recordar que las opiniones recogidas en 2003 en relación al medio ambiente y la salud pueden estar influenciadas por la catástrofe del hundimiento del “Prestige” y su consiguiente repercusión en nuestras costas). En 2004, en cambio, aumenta la mención de la reducción de la conflictividad (aunque sin alcanzar los niveles de 2000) y desciende (a los niveles de 2000) la mención de la reducción de la pobreza, de la protección del medio ambiente y de la mejora de la salud.

En cuanto a los **objetivos prioritarios para la CAPV dentro de diez años**, la protección y conservación del medio ambiente recibe en 2004 menos menciones que en 2000 o en 2003. La reducción de la pobreza, en cambio, es más mencionada que en años anteriores, mientras que la creación de riqueza y aumento del empleo, que había descendido en 2003, retoma los niveles del año 2000.

## AZKEN BURUAN / *EN DEFINITIVA*

EAEko herritarren gehiengo zabalak **ingurumena zaintzea** eta kutsaduraren kontra borrokatzea berehalako arazo larria dela uste du (eta Europako batez bestekoa baino neurri handiagoan). Dena dela, zein den, bai gaur egun, bai hamar urte barru, EAErako helbururik garratzitsuena galdetuta, herritar gutxik erantzun dute ingurumena zaintzea eta babestea, eta askoz gehiagok aipatu dituzte aberastasuna sortzea eta lana gehitzea, gatazka politikoa eta soziala murriztea edo pobrezia murriztea.

Gutxi dira ere **ingurumenari buruzko programez** zerbait entzun dutenak: heren batek zer edo zer entzun du *Garapen jasangarriaren euskal ingurumen estrategiaz*, laurden batek *ingurumen adierazle*ez eta are gutxiagok *Tokiko agenda 21*ez.

La gran mayoría de la ciudadanía vasca cree que la **protección del medio ambiente** y la lucha contra la contaminación es un problema inmediato y urgente (opinión superior a la media europea), sin embargo preguntados los ciudadanos y ciudadanas sobre cuál consideran que es el objetivo prioritario para la CAPV, tanto en la actualidad como dentro de diez años, son minoría quienes señalan la protección y conservación del medio ambiente, siendo bastantes más quienes señalan la creación de riqueza y aumento del empleo, la reducción de la conflictividad política y social o la reducción de la pobreza.

Son minoría también los ciudadanos y ciudadanas que han oído hablar de los distintos **programas medioambientales**: apenas un tercio ha oído hablar de la *Estrategia ambiental vasca de desarrollo sostenible*, son una cuarta parte quienes han oído hablar de los *indicadores ambientales* y menos aún quienes han oído hablar de la *Agenda local 21*.

# A - Ingurumenarekiko ardura / *Preocupación por el medio ambiente*

- **Ingurumena zaintzea kezka bezala /**
  ***La protección medioambiental como preocupación***
- **EAErako egungo lehentasunezko helburuak /**
  ***Objetivos prioritarios para la CAPV en la actualidad***
- **EAErako etorkizunerako lehentasunezko helburuak /**
  ***Objetivos prioritarios para la CAPV en el futuro***

# Ingurumenarekiko ardura / *Preocupación por el medio ambiente*

## Ingurumena zaintzea kezka bezala / *La protección medioambiental como preocupación*

(GUZTIZKOAK ETA ALDERAKETA GEOGRAFIKOA / *TOTALES Y COMPARACIÓN GEOGRÁFICA*)

**Pertsona batzuk ingurumenaren zaintzeaz eta kutsaduraren kontrako borrokaz arduratuta daude. Zure ustez arazo hau… /**
*Algunas personas están preocupadas por la protección del medio ambiente y la lucha contra la contaminación. En su opinión éste es…*

| | EAE / *CAPV* 2004KO API.-MAI. *ABR.-MAY. 2004* | EUROPAR BATASUNA (15) / *UNIÓN EUROPEA (15)* 1999KO MARTXOA-APIRILA. / *MARZO-ABRIL 1999* * | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | BELGIKA / BÉLGICA | DANIMARKA / DINAMARCA | ALEMANIA / ALEMANIA | GREZIA / GRECIA | ESPAINIA / ESPAÑA | FRANTZIA / FRANCIA | IRLANDA / IRLANDA | ITALIA / ITALIA | LUXENBURGO / LUXEMBURGO | HERBEHEREAK / PAÍSES BAJOS | AUSTRIA / AUSTRIA | PORTUGAL / PORTUGAL | FINLANDIA / FINLANDIA | SUEZIA / SUECIA | ERRESUMA BATUA / REINO UNIDO | EB-15 (BATEZ BESTEKOA) / UE 15 (MEDIA) |
| BEREHALAKO ARAZO LARRIA DA / *UN PROBLEMA INMEDIATO Y URGENTE* | 79 | 55 | 70 | 70 | 91 | 73 | 52 | 56 | 80 | 68 | 70 | 67 | 82 | 74 | 87 | 66 | **69** |
| GEHIEN BAT GEROKO ARAZOA DA / *MÁS BIEN UN PROBLEMA PARA EL FUTURO* | 16 | 35 | 24 | 22 | 8 | 21 | 40 | 25 | 14 | 27 | 21 | 20 | 13 | 21 | 9 | 26 | **23** |
| EZ DA BENETAKO ARAZOA / *NO ES REALMENTE UN PROBLEMA* | 1 | 9 | 5 | 4 | 1 | 3 | 4 | 8 | 3 | 4 | 9 | 5 | 2 | 4 | 2 | 5 | **4** |
| ED-EE / *Ns-Nc* | 3 | 2 | 0 | 3 | 1 | 3 | 5 | 12 | 3 | 1 | 1 | 8 | 2 | 1 | 2 | 4 | **3** |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

* EUROBAROMETER 51

☑ EAEko 14 urte baino gehiagokoen gehiengoak ingurumena zaintzea eta kutsaduraren kontrako borroka berehalako arazo larria dela uste du (%79).

☑ %16k gehienbat geroko arazoa dela uste dute eta %1ek ez dela benetako arazoa pentsatzen du. Beste %3k ez dakite edo ez dute erantzun.

☑ Grezian, Suezian, Portugalen eta Italian EAEn baino apur bat gehiago dira ingurumena zaintzea berehalako arazo larria dela uste dutenak. Dena dela, EAE 2004ko maiatzaren 1aren aurretik Europar Batasuna osatzen zuten 15 herrialdeen batez bestekoaren gainetik dago (1999ko batez bestekoa).

☑ La mayoría de los ciudadanos y ciudadanas de la CAPV mayores de 14 años creen que la protección del medio ambiente y la lucha contra la contaminación es un problema inmediato y urgente (79%).

☑ Un 16% cree que más bien es un problema para el futuro y un 1% piensa que no es realmente un problema. Otro 3% no sabe o no responde.

☑ En Grecia, Suecia, Portugal e Italia son algunos más que en la CAPV quienes consideran la protección medioambiental como un problema inmediato y urgente. En cualquier caso, la CAPV se encuentra por encima de la media (de 1999) de los 15 países integrantes de la Unión Europea antes del 1 de mayo de 2004.

# Ingurumenarekiko ardura / *Preocupación por el medio ambiente*

## Ingurumena zaintzea kezka bezala / *La protección medioambiental como preocupación*

(Kolektiboka / *Por colectivos)*

**Pertsona batzuk ingurumenaren zaintzeaz eta kutsaduraren kontrako borrokaz arduratuta daude. Zure ustez arazo hau… /**
*Algunas personas están preocupadas por la protección del medio ambiente y la lucha contra la contaminación. En su opinión éste es…*

| | 2004ko apir.-mai. / *Abr.-May. 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | UDALERRIAREN TAMAINA / *TAMAÑO DE MUNICIPIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Txikia / Pequeño | Ertaina / Mediano | Hiriburua / Capital | Gizonezkoa / Varón | Emakumezkoa / Mujer | 15-17 | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 |
| Berehalako arazo larria da / *Un problema inmediato y urgente* | 79 | 72 | 82 | 78 | 78 | 81 | 79 | 80 | 79 | 85 | 84 | 84 | 80 | 64 |
| Gehien bat geroko arazoa da / *Más bien un problema para el futuro* | 16 | 24 | 14 | 17 | 15 | 15 | 18 | 16 | 17 | 14 | 12 | 14 | 17 | 25 |
| Ez da benetako arazoa / *No es realmente un problema* | 1 | 3 | 1 | 2 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 2 | 0 | 1 | 1 | 4 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 3 | 1 | 4 | 4 | 6 | 3 | 2 | 3 | 4 | 0 | 3 | 2 | 2 | 7 |
| (Ehuneko bertikalak) / *(Porcentajes verticales)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | IKASKETA MAILA / *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | EZKER-ESKUIN ARDATZA / *EJE IZQUIERDA-DERECHA* | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <Lehen mailakoak / <Primarios | Lehen mailakoak / Primarios | Bigarren mailakoak / Secundarios | Goi-mailakoak / Superiores | Ezkerra / Izquierda | Zentroa / Centro | Eskuina / Derecha | Ed-Ee / Ns/Nc |
| Berehalako arazo larria da / *Un problema inmediato y urgente* | 63 | 75 | 85 | 88 | 84 | 79 | 71 | 74 |
| Gehien bat geroko arazoa da / *Más bien un problema para el futuro* | 25 | 19 | 13 | 9 | 13 | 14 | 25 | 20 |
| Ez da benetako arazoa / *No es realmente un problema* | 4 | 2 | 0 | 0 | 0 | 3 | 1 | 2 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 9 | 4 | 1 | 2 | 2 | 4 | 3 | 5 |
| (Ehuneko bertikalak) / *(Porcentajes verticales)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Aztertutako kolektibo guztietan ingurumena zaintzea eta kutsaduraren kontra borrokatzea berehalako arazo larria dela uste dute gehienek. Dena dela, alde batzuk adierazi daitezke taldeen artean:

- Ingurumena zaintzea berehalako arazo larritzat apur bat gehiago jotzen da Bizkaian eta gutxiago Araban (arabarren laurden batek gehienbat geroko arazoa dela uste du).
- 65 urte baino gutxiago dutenek adin hori beteta dutenek baino larriagotzat jotzen dute ingurumenaren babesa.
- Ikasketa maila igo ahala eta/edo ardatz ideologikoan eskuinetik ezkerrera joan ahala, ingurumena zaintzea larritzat jotzea zabalduago dago.

☑ En todos los colectivos analizados son mayoría quienes consideran que la protección del medio ambiente y la lucha contra la contaminación es un problema inmediato y urgente. En cualquier caso, se pueden señalar algunas diferencias entre grupos:

- La consideración de la protección medioambiental como un problema inmediato y urgente es algo más señalada en Bizkaia y menos en Araba (una cuarta parte de los alaveses y alavesas creen que más bien es un problema para el futuro).
- Las y los menores de 65 años lo consideran más urgente que quienes superan esa edad.
- A medida que aumenta el nivel de estudios y/o que nos desplazamos de derecha a izquierda en el eje ideológico aumenta la percepción de la urgencia de la protección medioambiental.

# Ingurumenarekiko ardura / *Preocupación por el medio ambiente*

## EAErako egungo lehentasunezko helburuak / *Objetivos prioritarios para la CAPV en la actualidad*

(Guztizkoak / *Totales*)

**Ondoren administrazio publikoen helburu batzuk aipatuko dizkizut. Zure iritziz, zein da horien artean Euskadiko Komunitaterako gaur egungo helbururik garrantzitsuena? /**

*A continuación le voy a mencionar algunos de los objetivos que tienen las administraciones públicas. Dígame, por favor, en su opinión, ¿cuál es el objetivo más importante para la Comunidad Autónoma Vasca en la actualidad?*

| | 2000ko urri.-aza.* *Oct.-Nov. 2000 ** | 2003ko eka.-uzt.** *Jun.-Jul. 2003 *** | 2004ko apir-mai. *Abr.-May. 2004* |
|---|---|---|---|
| Aberastasuna sortu eta lana gehitu / *Crear riqueza y aumento de empleo* | 36 | 35 | **42** |
| Gatazka politikoa eta soziala murriztu / *Reducir conflictividad política y social* | 40 | 29 | **35** |
| Pobrezia murriztu / *Reducir la pobreza* | 12 | 17 | **13** |
| Ingurumena zaindu eta babestu / *Proteger y conservar el medio ambiente* | 4 | 7 | **3** |
| Biztanleriaren osasuna hobetu / *Mejorar la salud de la población* | 2 | 5 | **3** |
| Besteak / *Otros* | 4 | 6 | **1** |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 1 | 2 | **4** |
| (Ehuneko bertikalak) /*(Porcentajes verticales)* | 100 | 100 | 100 |

* IHOBE: Ekobarometro soziala 2001 / *IHOBE: Ecobarómetro social 2001*

** IHOBE: Ekobarometro soziala 2004 / *IHOBE: Ecobarómetro social 2004*




☑ Biztanleriari EAErako gaur egungo helbururik garrantzitsuena zein den galdetuta, %42k aberastasuna sortzea eta lana gehitzea dela erantzun dute, %35ek gatazka politikoa eta soziala murriztea adierazi dute, gutxiago dira pobrezia murriztea dela esan dutenak (%13) eta askoz gutxiago ingurumena zaintzea eta babestea (%3) edo biztanleriaren osasuna hobetzea (%3) direla uste dutenak. %1ek bestelako helburuak aipatu ditu eta gainontzeko %4k ez dakite edo ez dute erantzun.

☑ Aurreko urteekin konparatuta, 2004an aberastasuna sortzea eta lana gehitzea gehiago aipatu da. Gatazka politikoa eta soziala murriztea gutxiago aipatu zen 2003an, orain, berriz, gehiago esan da baina ez 2000 urtean aipatu zen beste. Pobrezia murriztea, ingurumena zaintzea eta babestea eta biztanleriaren osasuna hobetzea 2000 urtean baino gehiago aipatu ziren 2003an eta orain berriro 2000ko mailetara jaitsi dira.

☑ Preguntada la población sobre cuál debe ser el objetivo prioritario para la CAPV en la actualidad un 42% responde que debe ser crear riqueza y aumentar el empleo, un 35% señala reducir la conflictividad política y social, son menos quienes señalan reducir la pobreza (13%) y muchos menos quienes creen que debe ser proteger y conservar el medio ambiente (3%) o mejorar la salud de la población (3%). Un 1% menciona otros objetivos y el 4% restante no sabe o no contesta.

☑ Respecto a periodos anteriores, en 2004 se observa un incremento de mención de la necesidad de crear riqueza y aumentar el empleo. La reducción de la conflictividad política y social, menos mencionada en 2003, vuelve a mencionarse más, aunque sin llegar a los niveles de 2000. Por su parte, la reducción de la pobreza, la protección medioambiental y la mejora de la salud de la población, algo más señaladas en 2003 que en 2000, caen de nuevo a los niveles registrados en el año 2000.

# Ingurumenarekiko ardura / *Preocupación por el medio ambiente*

## EAErako egungo lehentasunezko helburuak / *Objetivos prioritarios para la CAPV en la actualidad*

(KOLEKTIBOKA I / *POR COLECTIVOS I*)

**Ondoren administrazio publikoen helburu batzuk aipatuko dizkizut. Zure iritziz, zein da horien artean Euskadiko Komunitaterako gaur egungo helbururik garrantzitsuena? /**
*A continuación le voy a mencionar algunos de los objetivos que tienen las administraciones públicas. Dígame, por favor, en su opinión, ¿cuál es el objetivo más importante para la Comunidad Autónoma Vasca en la actualidad?*

| | 2004KO APIR.-MAI. *ABR.-MAY. 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | UDALERRIAREN TAMAINA *TAMAÑO DE MUNICIPIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK *GRUPOS DE EDAD* | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | TXIKIA PEQUEÑO | ERTAINA MEDIANO | HIRIBURUA CAPITAL | GIZONEZKOA VARÓN | EMAKUMEZKOA MUJER | 15-17 | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 |
| ABERASTASUNA SORTU ETA LANA GEHITU / *CREAR RIQUEZA Y AUMENTO DE EMPLEO* | 42 | 46 | 42 | 39 | 35 | 44 | 43 | 42 | 41 | 30 | 42 | 42 | 42 | 44 |
| GATAZKA POLITIKOA ETA SOZIALA MURRIZTU / *REDUCIR CONFLICTIVIDAD POLÍTICA Y SOCIAL* | 35 | 31 | 33 | 39 | 35 | 35 | 34 | 35 | 34 | 33 | 36 | 38 | 34 | 29 |
| POBREZIA MURRIZTU / *REDUCIR LA POBREZA* | 13 | 13 | 14 | 10 | 16 | 12 | 12 | 12 | 13 | 19 | 10 | 11 | 15 | 14 |
| INGURUMENA ZAINDU ETA BABESTU / *PROTEGER Y CONSERVAR EL MEDIO AMBIENTE* | 3 | 2 | 3 | 4 | 5 | 3 | 3 | 3 | 3 | 8 | 4 | 3 | 3 | 1 |
| BIZTANLERIAREN OSASUNA HOBETU / *MEJORAR LA SALUD DE LA POBLACIÓN* | 3 | 5 | 3 | 2 | 4 | 2 | 4 | 3 | 3 | 3 | 2 | 2 | 3 | 6 |
| BESTEAK / *OTROS* | 1 | 2 | 0 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| ED-EE / *NS-NC* | 4 | 0 | 5 | 4 | 4 | 4 | 4 | 4 | 4 | 6 | 4 | 3 | 3 | 5 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) /*(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Aztertutako talde guztietan gehien aipatu den helburua aberastasuna sortzea eta lana gehitzea da, horren atzetik gatazka politikoa eta soziala murriztea datorrelarik eta hirugarrenez pobrezia murriztea, salbuespen bakarra 15-17 urtekoak izanik, horien artean gatazka politikoa eta soziala murriztea aberastasuna eta lana gehitzea baino apur bat gehiago aipatu baita.

☑ Oro har, aberastasuna sortzea eta lana gehitzea apur bat gehiago aipatu dira Araban. 15-17 urteetako gazteen artean helburu horren aipamenak batez bestekoa baino askoz urriagoak dira.

☑ Gatazka politikoa eta soziala murriztea apur bat gehiago aipatu da Gipuzkoan (hor aberastasuna eta lana gehitzearen beste aipatu baita) eta 30-45 urte tartekoen artean. Gutxiago aipatu dute, berriz, 64 urtetik gorakoek.

☑ Pobrezia murriztea eta ingurumena zaintzea eta babestea apur bat gehiago aipatu dira 18 urte bete ez dituztenen artean, biztanleriaren osasuna hobetzea, berriz, 64 urtetik gorakoen artean. Aipatzekoa da ingurumena babestearen eta osasuna hobetzearen aipamenak ez direla %10era heldu kolektibo batean ere.

☑ En todos los colectivos analizados es más mencionada la creación de riqueza y aumento del empleo, seguida de la reducción de la conflictividad política y social y en tercer lugar la reducción de la pobreza, a excepción de entre los y las más jóvenes (15-17), las cuales mencionan algo más la reducción de la conflictividad política y social que la creación de riqueza y empleo.

☑ En general, la creación de riqueza y aumento del empleo es algo más mencionada en Araba. Entre las y los más jóvenes (15-17 años) la mención de este objetivo es bastante inferior a la media.

☑ La reducción de la conflictividad política y social es un poco más señalada en Gipuzkoa (tanto como la creación de riqueza y empleo) y entre quienes tienen entre 30 y 45 años. Por el contrario, quienes menos la mencionan son las personas mayores de 64 años.

☑ La reducción de la pobreza y la protección y conservación del medio ambiente son algo más mencionadas por los y las menores de edad, mientras que la mejora de la salud de la población es algo más mencionada por quienes superan los 64 años. Es de destacar que la protección medioambiental y la mejora de la salud no alcanzan el 10% de mención en ningún colectivo.

# Ingurumenarekiko ardura / *Preocupación por el medio ambiente*

## EAErako egungo lehentasunezko helburuak / *Objetivos prioritarios para la CAPV en la actualidad*

(Kolektiboka II / *Por colectivos II*)

**Ondoren administrazio publikoen helburu batzuk aipatuko dizkizut. Zure iritziz, zein da horien artean Euskadiko Komunitaterako gaur egungo helbururik garrantzitsuena? /**
*A continuación le voy a mencionar algunos de los objetivos que tienen las administraciones públicas. Dígame, por favor, en su opinión, ¿cuál es el objetivo más importante para la Comunidad Autónoma Vasca en la actualidad?*

| | 2004ko apir.-mai. / *Abr.-May. 2004* | Ikasketa maila / *Nivel de estudios* | | | | Ezker-eskuin ardatza / *Eje izquierda-derecha* | | | | Ingurumena zaintzea arazo larritzat / *La protección medioambiental como problema urgente* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | <Lehen mailakoak / <Primarios | Lehen mailakoak / Primarios | Bigarren mailakoak / Secundarios | Goi-mailakoak / Superiores | Ezkerra / Izquierda | Zentroa / Centro | Eskuina / Derecha | Ed-Ee / Ns/Nc | Bai / Sí | Ez / No |
| Aberastasuna sortu eta lana gehitu / *Crear riqueza y aumento de empleo* | 42 | 42 | 45 | 40 | 38 | 40 | 41 | 48 | 43 | 40 | 50 |
| Gatazka politikoa eta soziala murriztu / *Reducir conflictividad política y social* | 35 | 25 | 29 | 39 | 43 | 38 | 37 | 33 | 28 | 37 | 28 |
| Pobrezia murriztu / *Reducir la pobreza* | 13 | 18 | 15 | 11 | 9 | 12 | 14 | 10 | 14 | 13 | 14 |
| Ingurumena zaindu eta babestu / *Proteger y conservar el medio ambiente* | 3 | 2 | 3 | 4 | 2 | 3 | 3 | 2 | 3 | 4 | 1 |
| Biztanleriaren osasuna hobetu / *Mejorar la salud de la población* | 3 | 8 | 3 | 3 | 1 | 2 | 3 | 4 | 4 | 3 | 4 |
| Besteak / *Otros* | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| Ed-Ee / *Ns-Nc* | 4 | 4 | 4 | 3 | 4 | 3 | 3 | 2 | 6 | 4 | 2 |
| (Ehuneko bertikalak) /*(Porcentajes verticales)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Aztertutako kolektibo guztietan lehenengo aberastasuna sortu eta lana gehitu aipatu dira, bigarren gatazka politikoa eta soziala murriztu eta hirugarren pobrezia murriztu. Salbuespen bakarra goi-mailako ikasketak dituztenei dagokie, horiek gatazka politikoa eta soziala murriztea aberastasuna eta lana gehitzea baino apur bat gehiago aipatu baitute.

